



◉ PERTSONAIA ◉

Puri Etxaburu

«Gorrak badaudela aitortzea bera da inportantea»

Itzultzailea da, gorrena. Ospe handiko hainbat ekitaldi eta sari banaketatan ikusi dugu jendaurrean lanean, ikusezin igarotzeko arrisku handia gorabehera, hain dugu enpatia txikia (ez)berdinarekiko. Mundu eder, oparo, teknologiarik berrienaz jantzirik aurkezten zaiguna arrunt neurri estukoa begitantzen zaigu Puri Etxabururekin jardunik. Mundua, eta norentzat eta zeinentzat, eta hautatu bakan pribilegiatuontzat beste inorentzat ez.

Nortasun agiria

Purificación Etxaburu Montoya (Ondarroa, Bizkaia, 1973). Ondarroan jaio eta hazia. Hangoa aita, Erandiokoa (Bizkaia) ama. Gorra ditu biak eta zeinu hizkuntza, berriz, ama hizkuntza. Herrian bertan egin zituen unibertsitate arteko ikasketak. Ondoren, Lan Harremanetako karrera hasi zuen EHUn

baina lanera deitu zioten amaitu aurretik eta bukatu gabe dituen unibertsitate ikasketak. Gorren itzultzaile da lanbidez, hezkuntza sisteman ari da, heziketa laguntzan. Tartean-tartean, berriz, zenbait ekitaldi eta sari banaketatan lan egin ohi du, gorren itzultzaile betiere. Bilbon bizi da gaur egun.

Elkarrizketara lotsatan zatozela diostazu. Lotsatan? Telebistan ere azaldu izan zara eta!

Bai, baina han ez didate galderarik egiten. Zuzenean egin behar izaten dut lan, baina erantzun beharrik gabe. Batetik, lotsatia naiz, eta bestetik, nahiko traketsa hizketan.

Hizketan traketsa eta itzultzaile? Ez nuen berehalakoan esango!

Baietz, bada! Badut lagun bat, esaten didana: “Puri, bukatu esaldiak!”. Halaxe esaten dit. Kosta egiten zait, nonbait. Errazago zait besteren hitzak hartzea.

Besteren hitzak hartu, eta itzultzea.

Horixe da nire lana.

ETB1en ikusi zintugun azkena, joan den abenduaren hasieran, Euskadi literatura sariak banatzeko ekitaldian. Itzultzaile lanean ari zinen orduan ere.

Ez da ekitaldi horretan parte hartzen dudaren lehenengo aldia, laugarren edo bosgarren urtea bai! Eta ez dakit saio horretan nola hasi nintzen ere. Enpresa jakin batek deitzen dit. Behin, orain dela lau edo bost urte, galdetu zidaten Euskadi sarietan itzultzen lan egiteko prest ote nengoen, eta nik baietz. Eta joan nintzen. Ordudanik urtero-urtero deitzen didate, eta joaten naiz. Are gehiago, literatura sarietan hasi eta, urte hartan bertan, lehendakartzatik deitu zidaten beste zenbait ekitalditan ere itzultzaile lana egiteko. Ordutik hona Gabonetako harrera ekitaldian, kirol sarietan, Dolores Ibarri sarietan, Lan Ona sarietan eta era horretako zenbait ekitalditan egin dut lan.

Bigarren mailako aurkezlearen itxura duzu ekitaldi horietan.

Ez, ez, ezta pentsatu ere! Han dagoen norbait naiz ni, zubi egiten. Izan ere, horixe gara gu, zubi, gorren eta entzuten dutenen arteko zubi. Ekitaldi berezi horietan lan egin izan dut, entzuleen artean gorra egon ala ez. Gorra dauden kasuan, ikusi egiten ditut, segituan gainera, eurek ere zeinu hizkuntzan adieraziko didatelako: “Gorra naiz!”. *[Eta zeinu hizkuntza ere baliatu du, gorrek nola adieraziko lioketen ikus dezadan].* Gorrik ez dagoenean, jende artera begiratu besterik ez

Ondarroan ‘Potoneku’

“Ondarroarra izateko Etxaburu edo Badiola behar duzu izan, eta gu Etxaburu gara. Kulixkako etxeetan bizi ginen. Ni naiz mutuaren alaba, Potoneku Badiola. Familiaren gaitzizena da Poto. Beste bat Garbantzonekoa den moduan, edo beste bat Piperranekoa, gu Potonekoak. Aita oso ezaguna zen Ondarroan: txikitxo, maitagarria... Portuan egiten zuen behar, barran, deskargan. Hainbat anaia-arrebetan txikiena zen, gorra, eta ‘mutu!’ esaten zioten. Ez da mutua baina”.

dut egiten. Hori dela eta, itzultzailearen batek edo bestek esan izan dit gorra behar duela aurrean, bere lana egiteko. Ni ohitu egin naiz itzultzen, jendartean gorra izan edo ez izan.

Zer diozu esperientziari buruz?


Orain oso erraza zait, baina hasiera baten... Ez nuen egoeraren berri: lekua, jendea, itzultzeko edukia... Hala ere, bai lehen eta bai orain, urduri joaten naiz era horretako ekitaldietara. Tripak gora eta behera ibiltzen ditut, hankak dardarka... Baina behin ekitaldia hasiz gero, lasaitu egiten naiz. Itzuli egiten dut, hori da eta nire lana. Baina urduritasuna, beldurra, “ondo egingo ote dut, txarto?”... Hortxe beti. Normala izango da kezka, momentuko kontua. Ez dakit bada, nik. Dena den, urteak daramatzat lanean eta moldatzen naizela uste dut.

Ez dakit nola hasi zinen itzultzaile lanean.

Lehenengo, sindikatu batentzat egin nuen lan. Artean ez nintzen itzultzaile. Lantegi batean egin nuen lan, gorra zituzten bospasei langileekin. Gorra haientzako itzultzaile eramanez ninduten hara. Sari banaketa eta horrelako ekitaldietan, berriz, lagun baten bitartez hasi nintzen. Berak ez daki euskaraz, eta zenbait ekitalditan euskaraz jakitea eskatzen hasi ziren. Gogoratzen dut mesedez eskatu zidala, berarekin joan eta agertoki aurrean beraren parean jarrita egoteko, laguntzeko. Alegia, ekitaldian euskaraz hasten zirenean, nik zeinu hizkuntzara itzultzen nuen, eta nire lagunak, ekitaldiko gorren itzultzaileak, niri kopiatzen zidan: nik euskaratik zeinu hizkuntzara itzultzen nion, eta berak jendeari transmititzen. Ondoko urtean neuk egin nituen, zuzenean, itzultzaile lanak.

Zu baino lehenagokoak dira gorren itzultzaileak telebistan eta jendaurreko ekitaldietan...

Nieves Perex eta! Bera izan zen Bizkaian bideak zabaltzen lehena. Bilboko udal ardura-dunekin harremanetan jarri zen, bateko eta beste ekitaldian, inauterietan eta, gorren itzultzaileak jar zituzten. Diputazioarekin ere saiatu zen, eta lortu ere bai. Berak urratu zuen bide hori. Nievesez gero, asko dira itzultzaile elkartean ari direnak.



Itzultzaile elkartean?

Zeinu hizkuntzan lan egiten duten itzultzaileen elkartea, esan nahi dut. Itzultzaile elkartea gorren seme-alabek sortu dute. Gorrak medikuarenera joan behar zuela eta, nork eramango? Semeak, alabak... Banketxera joan beharra, eta norekin joan? Berdin. Gaur egun bada horretarako zerbitzua, elkarteak eskaintzen duena. Lehen ez zegoen horrelakorik. Elkartea berria da, 1995ean sortu zen. Elkartea berria, eta lanbidea bera ere berria. Hasi ginenean ez zegoen itzultzaile ikasketarik. Elkarteak ikastaro zenbait antolatzen zituen, eta egin nituen. Askorik ez nuen ikasi, nik aurretik ere banekielako zeinu hizkuntzan komunikatzen, baina itzulpena landu nuen, diferentea da-eta eduki formalak eta ez formalak itzultzea, adibidez.

Itzultzaile ikasketarik bada gaur egun?

Bai, goi mailako zikloa da, duela gutxi abiarazitakoa. Orain dela sei bat urte edo hasi ziren horretan. Zeinu hizkuntza ez ezik beste hainbat gai erakusten dituzte: gor komunitatearen psikosoziozologia, euren historia, ohiturak, nazioarteko sistema, gida-interpretazioa...

"Gida-interpretazioa"?

Bai. Urte askoan gor izan denak ikusmena gal-tzera jotzen du urteen poderioz. Lehenengo

gor, eta azkenean gor eta itsu! Bestalde, badira jaiotzez gor eta itsu direnak ere. Gida-interpretazioan, hortaz, haien sistema ikasten da. Gor itsututakoek zeinu hizkuntza erabiltzen segitzen dute, baina besteren eskuaren ukipenaz lagundurik.

Ez zara gor ez mutu, zerk eraman zaitu gorren mundura?

Gurasoek.

Zer esan nahi duzu, "gurasoek"?

Gorrek ditut gurasoak, nola aita, hala ama. Alaba bakarra naiz eta zeinu hizkuntza dut ama hizkuntza. Bederatzi hilabetetan hasi nintzen lehenengo hitzak esaten.

Zeinu hizkuntzan?

Bai, zeinu hizkuntzan. Jatekoa eskatzen hasi nintzen lehenengo, edatekoa... Horrela kontatzen dit amak.

Bataren euskara, bestearen gaztelania edo frantsesa... Zuk, zeinu hizkuntza, ama hizkuntza.

Bai, beste ume guztiek bezala hizkuntza jaso nuen amarengandik. Bi urte nituela eraman ninduten eskolara, nahiz eta garai hartan hiru urterekin hasten ziren umeak. Gurasoek baimena eskatu zuten, etxean entzuten ez nuena



eskolan entzun nezan, belarria egin eta hitz egiten ondo ikas nezan... Berandu hasi nintzen hitz egiten, ondo hitz egiten behintzat. Hasieran gurasoek bezala hitz egiten nuen, ondo ahoskatu gabe eta.

Besteok bezalaxe hitz egiten duzu orain, zure lagunak esana gorabehera, esaldiak ez dituzula bukatzen, alegia...

Bai, kar, kar, kar... Lau-bost urterekin beste urrats bat egin nuen. Izeko dugu Bilbon, euskaraz ez dakiena. Ondarroara etorri zen batean, erdaraz bate-re ez nekiela konturatu zen. Familia ondarroarra; denak euskaldunak; etxean zeinu hizkuntza... Ez nekien erdaraz. Izekok, berriz, etxe bat zeukan Palentziako (Espainia) herri txiki-txiki batean, Congoston, eta hiru uda pasatu nituen han, erdaraz ikasten. Eta ikasi nuen.

Besterik ere ikasi duzu. Ikasketak egina zara.


07
08

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendari Titular eta Artistikoa, Juanjo Mena

OTSAILA 7 - 8

ordua 20:00

Kontzertua nahierara

S. Barber: Concierto para violín y orquesta, op. 14

H. Berlioz: Sinfonía fantástica, op. 14

Mark Kaplan, biolina

Günter Neuhold, zuzendaria



Sinfonia Fantastikoa

| Informazioa | | | Babeslea |
|---|--------------------------------------|---|---|
| ordutegia 20:00 | lekua Palacio Euskalduna Jauregia | prezioak 25,20 € 12,40 € gazteak (-27) 7,80 € 4,20 € | BIKREN GORRI baldin baduzu,  sarretarak 2,10€ eta abontzak 31,50€ |
| www.bilbaorquestra.com T. 94 40 35 205 | | | |



Ondarroan egin nituen lehen ikasketak. Hantxe institutua ere. Gero, Lan Harremanak ikasten hasi nintzen EHU-n, Leioan, baina ez nuen amaitu. Ikasketak bukatu baino lehen beharrean hasi nintzen. Bilbora bizitzera etorri ginen garai hartan, eta gorren federazioan lan egiteko eskatu zidaten. Itzultzaile hasi nintzen, eta horretan ari naiz gaur egun ere. Hasiz gero ez naiz geratu.

Itzultzaile zara, euskaratik euskarara, eta gaztelaniatik gaztelaniara egiten duzu lan, zeinu hizkuntzara betiere.

Horixe. Gaur egun, hala ere, institutu batean ari naiz beharrean. Ikasle baten itzultzaile naiz. Gentzane du izena. Haren aurrean jartzen naiz eta irakasleak esaten duen gutzia itzultzen diot. Aurten ikasle horixe dut, baina gehienetan bi ikasle izaten ditugu, ikastetxe berean edo ezberdinetan, maila berean edo batean baino gehiagotan.

Gentzane.

Batxilergoko lehenengo mailan ari da, hamazazpi urte ditu. Neska argia da, ikasketa errazik ez dago baina.

Gai guztiak itzultzen dizkiozu?

Gorrek gai teorikoetan behar du itzultzailea. Historia, Kimika, Matematika... Soin Hezkuntzan, aldiz, partida bat jokatzeko gorrek ez du itzultzaile behar, ezta berotze arike-

Itzultzailea eta laguntzailea

“Asko irauten duen saioaren bat itzuli behar denean, hiru edo lau itzultzaile izaten gara lanean. Aldian-aldian, aldatu egiten gara. Erraz nekatzen gara. Gainera, heltzen da momentu bat buruak gehiago eman ezin duena. Saio luzea denean, jendaurrean ari den itzultzailea ez ezik, beste bat ere bada, aurrekoaren ondoan, laguntzen: itzultzaileak daturen bat ahaztu badu, esan gabe utzi badu, laguntzaileak osatu egiten du bidean galdutako informazioa. Itzultzen ari ez garenean ere laguntzaile lana egin behar izaten dugu”.

tak egiteko ere: nahikoa da lagunekin bat egitea. Dena dela, Gentzane kasura etorritz, borroka greziar-erromatarra egiten du! Baina itzultzaileok ez gara hizkuntzetan askorik sartzen. Hizkuntzei dagokionez, gorrek egokitze kurrikularra dute. Eman dezagun, ingelesa. Ni Gentzaneekin baldin banago, ingelesa itzultzen badiot, zeinu hizkuntzaz itzultzen badiot –zeinu hizkuntza espainola–, ez du ingelesez ezer ikasiko. Hortaz, ni ez naiz han izaten. Gentzane ez du ingelesez hitz egiten ikasiko, ezin du eta entzun. Baina idazten bai, ikasiko du, ari da ikasten. Ingeles idatzia da haren helburua. Gentzane ingelesez komunikatzera helduko da, idatziz. Gorrek, zeinu hizkuntzaz gain, hizkuntza idatziak ikasten ditu...

Mundu berria dut...

Diferentea eta arraroa, ezta?

Ezezaguna.

Gorrek ez du entzuten. Guk besterik gabe barneratzen ditugun egiturak buruz ikasi behar izaten ditu. Buruz ikasi behar du hizkuntza idatzia bera ere. Oso lantegi zaila da hori. Esaldi laburrak buruz ikastea, ondo, baina hortik gora, lanak! Hizkuntza idatzia ondo menderatu ahal izateko txikitandik hasi beharra dago erakusten, ulermena lantzen eta. Gaur egun, batzuk gogotik hasten dira, beste batzuk ez. Familia, ikastetxea, irakas-

AZKEN HITZA

Telebista

“Gorrek gutxi ikusten dute Euskal Telebis-ta, aukera gutxi ematen du eta: azpitolu gutxi. Gorrak, orduan, beste kate batzuetara jotzen du. Esate baterako, batzuek eza-gutuko dute parlamentuko berriak zabal-tzen dituen programa, ETB2koa, *Palabra de ley*. Joan den martxoaz gero du gorren itzultzailea. Badira gorrak politika zaleak, gaia interesatzen zaie eta horren berri jakin nahi dute. Beste batzuek, berriz, itzultzailea ageri deneko laukitxoa ikustea nahikoa dute, telebista programari kasu egiteko”.

lea... Nik gurasoen inplikazioa azpimarratu-ko nuke.

Zer galtzen du gorrak mundu honetan?

Gauza gutxi.

Parkean gaudenez, Puri, gorrak ez du uraren hotsa aditzen, ez txorien txio-txiorik, ala?

Ez, baina inoiz ez du entzun... Bestalde, beti dago bibrazioa. Eta ukitzea. Hara, guk zarata handi bat entzuten dugunean, gorrak ere entzuten du, edo entzun lezake: bibrazioaren bidez.

Gorra gutxitu fisikoa al da?

Nik ez nuke esango gutxitua denik. Belarritik jasotzen den informazioa du muga. Horixe. Musika aparailu askoren kasuan, bolumena handituz gero gorrak bibrazioa senti dezake. Horixe egiten dute zenbait gorrek: autoan doa-zela, adibidez, bolumena handitzen dute, musika bibrazio bidez entzuteko, burrunba sentitzeko. Erritmoa, azken finean.

Gorren legeaz hitz egin izan didazu behin edo behin. Ez dakit zertan den...

Hegoaldeko dagokigunez, joan den udan onartu zuen Madrilgo Gobernuak. Zeinu hizkuntza bat badela aitortzen da bertan, eta gorrak badituela zenbait eskubide: hezkuntza jasotzekoa, adibidez, edota zenbait informa-zio azpitolu bidez jasotzekoa –telebistan, esaterako–, zenbait zerbitzutan itzultzailea-ren laguntza izateko eskubidea –osasungin-tzan, justizian...–, eta beste hainbat. Komu-nikazio hesiak apurtzea da helburua. Zeinu bidezko komunikazio sistemaren aitortpena egiten du legeak. Hala ere, lehenengo-lehe-nengo, gorrak badaudela aitortzea bera da inportanteena: “Badira gorrak, badira gor-

Naia Loizate

“Ikasle onak egokitu zaizkit itzuli beharrekoak. Naia Loizate, adibidez.

Lekeitiarra da, euskalduna. Gurasoek euskara landu zuten berarekin eta halaxe eman zioten hezkuntza osoa ere: euskaraz.

Txikitandik saiatu ziren etxean.

Logopedaren laguntza ere izan zuen. Erdara zuen arazoa, baina ondo moldatzen da orain. Hogeita bi urte ditu, unibertsitatean ari da, irakasle ikasketak egiten, bigarren mailan.

Haur Hezkuntza du espezialitatea. Unibertsitatean lñaki Gaminde idazlea du euskara irakasle. Naia irakasle izango da: gainerako irakaslegaien aukera berdina izango ditu, edo izan beharko litzuke.

Zeinu hizkuntza ez ezik, hitz egiten ere badaki, euskaraz. Ez du entzuten, baina ondo ahoskatzen badute, ulertzen du: gainera, testuinguruak eta intuizioak ere balio du. Bestalde, majo idazten du, eta irakurri, berriz, asko irakurtzen du”.

itsuak, eta komunikatzeko sistema bat behar dute”.

Telebistako sinbolo hori eta, halako edo halako saiok gorrentzako itzulpena duela adierazten diguna...

Sinbolo hori, “belarritxoa”... Gorrek urteak daramatzate aldarrikapenak egiten. Telebistako sistema hori eta, gorrentzako itzulpen sistema-duna, ez da oraingoa.

Legeak babesa dakar, aurrerapausoa da.

Aurrerapausoa da, baina ez da nahikoa. Esate baterako, telebista ikusten ari zara eta han, saio batean, laukitxoa: oso gauza bisuala da laukitxo hori, oso nabarmena, denek ikusten dute. Aldiz, inork ez du ikusten, ez daki, zenbat arazo izan zituzten gorrek iaz, film bat ikusi ahal izateko, azpitolurik ez zekarrelako. Inork ez dio teletestuari eragiten, halako edo halako filmek azpitolurik ba ote duen ikusteko. Legea badugu, baina nire ustez, gutxi da oraindik.

Zer da eginkizun?

Legea gauzatu behar da. Bete. Oso lege zabala da, zabalegia, gauza asko egin nahi dituzte, baina noiz egingo dituzten...

Itzultzaileari dagokionez, zer da egiteko dagoe-na?

Gorren itzultzaileak leku gehiagotan egon behar du. Gure jarduna ez dago normalizatua. Medikarenera jo eta zailtasunak. Berdin udale-txean. Galdetu eta erretolika nahasi eta ilun bat. “Aizu, barkatu, gorra naiz!”. Ez dira behar beste saiatzen. Sentsibilizazioa behar dugu, baina ez da hori bakarrik. Tabernara joan, eros-ketak egin, etxetresna elektrikoa erosi, udale-tzeko paperak... Guretzat egitekorik ohikoe-nak direnak, gorrentzat arazo larriak dira.

Bide horretan, zer eskatuko zeniguke gor ez garenoi?

Ulerkor izatea. Gorrak komunikatzeko zailta-sunak ditu. Askok arazo larriak, esango nuke. Gor ez denak horretaz jabetu behar du, eta ulerkor izan. Gorra ez da gor berak nahi duela-ko. Gorra da, gorra delako. Ez da ume txikia, edo gaitasun txikikoa, ezta hurrik eman erel! Askotan, alderantziz ere badela esango nuke. Zerbait aldarrikatzen duenean ez da nahikeriaz ari. Telebista eta filmetan, azpitoluak ez dira kapritxo, esate baterako, informazioa lortzeko bidea baizik.

Estimatzen dizut mundu ezezaguna zaidana bistara ekartzen laguntzeagatik. Eta, esan beharrean nago: esaldi guztiak bukatu ditu-zu...

A, bai? Mila esker. Esango diot nire lagunari... Ez dakit sinetsi ala ez baina. ■